

## ARRASATEKO UDALA-ARKAUTE HITZARMENA, HAINBAT ZALANTZA ZENTZUZKO

Irudikatuko du irakurleak norberari dagokiola zalantza bat zentzuzkoa den ala ez erabakitzea, baieztapenak tentuz egin behar direla alegia. Arrazoi izango du. Eta hala gabiltza gu ere, Arrasateko Udalak eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak (Arkaute herri hizkeran) eginiko Kudeaketa Materialerako Enkomienda hitzarmenean hainbat baieztapen irakurri ostean, guretzat iritzi eztabaidagarriak badirenak behintzat.

Goazen harira. Arrasateko Udalak 5 udaltzain lanpostu bete behar ditu. Ados gaude horrekin. Baina hori gauzatzeko, hitzarmena sinatu berri du Arkauterekin kolore politiko bereko beste udalerrri gutxi batzuekin batera, tartean hiriburu bakarra, Bilbo, dagoelarik. Hemendik aurrera Arkautek gidatuko ditu Arrasateko Udaltzain izateko hautaprobak.

Hitzarmenean hainbat baieztapen egiten dira, guretzat behintzat, zalantzarik direnak. Hasteko aipatzen da zailtasun tekniko handiak dituztela udalek pertsonaleko hautapropa hauek egiteko. Ez dugu ukatuko horrela denik udal batzuetan, baina Arrasatekoak hainbat aldiz egin ditu udaltzain hautaprobak bere baliabideekin. Gaitasun eza ez da Arrasateren kasua. Argi dago era berean hainbat gauza egiaztatzeko, froga fisikoak esaterako, udalez kanpoko enpresa/administrazioen laguntza behar dela. Baina hau ohikoa da beste hautapropa gehienetan.

Polizia lanpostua ez da edozein lanpostu eta kosta egiten zaigu Udaltzaingoa poliziaren zaku berean sartzea. Poliziak historia beltza du gurean eta gatazka politikoaren erdigunean egon da orain arte. Euskal jendartearen militarizazioa eta polizia kopuruaren gehiegitasuna maiz salatu izan da, datuak mahai gainean jarritz (datuak eldiario.es 2017-1-28). Polizia kopuruari eta funtzioari buruzko eztabaida behar dugu eta Udaltzainen rolari bestelako ñabardura batzuk eman, gertutasunetik eta herrigintzatik. Zoritxarrez udalez udal eman beharreko eztabaida hauei muzin egiten die Arrasate-Arkaute hitzarmenak, aipatzen duelako Udaltzaingoaren oinarritzko mailarako profil bera aplikatzea eta hautaketa prozesuaren ezaugarriak bateratzea. Uniformizatzeak zalantzak eragiten dizkigu, tokian tokiko ñabardura eta eztabaiden fruituak hautaprobatan aplikatu ezingo direlako. Badagoela ostean egiterik? Izan liteke, baina zertarako utzi gerorako hasieratik egin litekeena? Hasieratik udalak Udaltzaingoaren rola definitua badu, irizpide propioz egin behar luke hautaketa.

Hirugarrenez kostu ekonomikoak aurreztearen onura aipatzen da, baina ez da zenbakirik (hurbilketarik ere ez) eskaintzen. Azterketa eta kuantifikazioa beharrezkotzat jotzen ditugu, erabakia ganoraz hartuko badugu.

Amaitzeko, erabakia hartzeko orduan ez da konbentzimendurako gaitasunik egon. Ez EH BILDUK ez udaleko ELA eta LAB sindikatuak ez dugu hitzarmena babestu. Besteak beste, hitzarmenean iritziak onura baieztapen moduan agertzen direlako datuen inolako sostengurik gabe.

Eneko Barberena Mondragon

Arrasateko EH Bilduko zinegotzia